




Ikusgune

Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako behatokia

Observatorio contra la LGTBI+fobia de Vitoria-Gasteiz


Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko VIII. Txostena

Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina
erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.



aurkibidea

00	Sarrera	4
01	Egungo testuingurua	6
02	Metodologia	10
03	Gertakariak	13
04	Eztabaida eta ondorioak	24
05	Kolaborazioak	28



Gasteiz, LGTBI+ pertsonentzat udalerri atsegina

Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko VIII. Ikusgune Txostena daukagu aurrez aurre. Iaz, Ikusguneren 5. urteurrena ospatu genuen Gasteizko Udalarekin, eta aurten sareak¹ ezartzeko eta iruteko prozesu gogor baten emaitzak aipatu beharra dugu.

2024an, Ikusgunek 33 gertakarien ezagupen altua erregistratu zuen, **gure udalerrian indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideak sozializatzeko egindako lanari esker**. Hala ere, datuak biltzeko gure metodologia atalean aurkezten den sistema zorrotzetik igaro ondoren, txosten honetan 24 gertakari jaso dira. Era berean, azpimarratu behar dugu ez dela desberdintasun nabarmenik ikusten 2023an aurkeztutako datuekin alderatuta gertakari motei edo kopuruari dagokionez. Azpimarratu nahi dugu datuak lortu izanak ez gaituela egoera larriago baten aurrean jartzen, baizik eta **LGTBI+fobiaren egoera ezagutzeko baliabideak dituen udalerri baten aurrean; horregatik, positiboki irakurri behar dugu udalerri gehienetan hain ohikoa ez den errealitate hori**.

Ikusgunek aurten egin ahal izan duen ekarpen garrantzitsuenetako bat eremu judizialean gertatu da. **Gorroto-delituaren fiskal nagusiarekin eta Arabako Probintzia Fiskaltza espezialituarekin egon gara gorroto-delituak lantzen**. Topaketa horiek oso garrantzitsuak izan dira Ikusgune bezalako proiektu batentzat; iristen zaizkigun salaketa askok lege-ibilbiderik ez badute ere, bai gertatu dena ez delitua ez delako, bai frogatzeko oso zaila delako, bai biktimak ez duelako konfiantzarik sistema judizialean... Ikusgunen beti jaso ditugu (gorrotoaren) polarizazio-adierazleak eta polizian edo Ertzaintzan salatzen lagundu dugun bakoitzean, horiek salaketan idatziz agertu daitezela ziurtatu gara.

2024an **beste eragile batzuekin lan egin ahal izan dugu**, Medicus Mundi, Gasteizko Mugimendu Feminista, Koldo Mitxelena institutua eta Setem, besteak beste, eta horiek aukera eman digute gure begirada zabaltzeko eta adiskidetasuna eta sareak izateko estatutik kanpoko LGTBI+ kolektiboko elkarrekin eta elkarte feministekin. Gure ustez, harreman horiei estu ekitzeak aberastu egiten ditu Ikusguneren ikuspegiak eta estrategiak LGTBI+fobia prebenitzeko eta publikoki salatzeke.

Aurten baita ikasi dugu zer motatako pertsonak joaten diren Ikusgunen arreta jasotzera. Profilen artean, **kalteberatasun-egoeran dagoen pertsonarena hauteman dugu, eta profil horrek hainbat erakunderen esku-hartzea eskatzen du babes-neurriak edo baliabideak jasotzeko. Profil horrek agerian uzten du gizarte-eragile desberdinen artean koordinatzeko** eta begirada feminista intersektionala izateko beharra, LGTBI+fobiari aurre egiteko eta bizitzak, bereziki zaurgarrienak direnak, erdigunean jartzeko. Ildo horretan, **Gasteizko Mugimendu Feministaren transfobiaren aurkako konpromisoa ere nabarmentzea gustatuko litzaiguke**, eta adierazi nahi genuke gorroto-diskurtsoek ez dutela lekurik gure udalerriko borroka feministetan.

Beraz, **Gasteiz eraikitzen eta eraldatzen ari gara, LGTBI+ eskubideak dituen udalerri baterantz**, non LGTBI+ erakundeek eta entitateek elkarrekin parte hartzen dugun indarkeria horiei aurre egiten. Lan egiteko modu berezi horren ondorioz, harro gaude sexu- eta genero-aniztasunari laguntzeko eta jarrera LGTBI+fobikoei uko egiteko sare handi bat sortzen laguntzen. Hori dela eta, Gasteiz LGTBI+ eskubideen alde dagoen udalerria dela ospatzen dugu.

Aurten **bi kolaborazio** jaso ditugu, aurkeztu ditugun txostenetan ohikoa den bezala. Kolaborazio horiek garrantzitsuak iruditzen zaizkigu interesatzen zaizkigun eta jorratzen dituzten gaietara eman ahal izateko, bestela ez bailukete lekurik izango dokumentu honetan. Lehenengoa, **Lance Beoteguy**-ren testu bat, **identitate ez-bitarraren, desgaitasunaren eta gorputz eta bizipen disidenteen arteko intersektzioari buruzkoa**. Bigarrena, Observatori Contra L 'LGTBI+fobia'-ren elkarteko psikologo sozial eta elkarte berako koordinatzaile teknikoa den **Cristian Carreren** testua, **zeinetan ikasgeletako LGTBI+fobiari buruz hitz egiten duen**. Gaurkotasuneko gaia da, eta funtsezko lana egin behar da hura pairatzen duten

¹ [VII. Ikusgune txostena](#)


00. SARRERA

pertsonak babesteko erantzunak eta protokoloak ezartzeko.




Sarrera honekin amaitzeko, LGTBI+ pertsonak gonbidatu nahi ditugu, ahal duten neurrian, erresistentzia-espazio eta -sareak sor ditzaten, haietan inplika daitezen eta parte izan daitezen. LGTBI+ pertsona desberdinekin **loturak** sor ditzaketen espazioak, ideiak eta bizipenak trukatzeko, ikaskuntzak eta genealogiak **kolektibizatze**ko. **Indarkeria jasateko beldurraren aurrean, berebiziko garrantzia du beldur hori politika eraldatzaile, espazio atsegin eta ahalduntze bihurtzeko aukera ematen diguten espazioetan parte hartzeak.** Guztiontzako bizitza bizigarriagoak eta indarkeriarik gabekoak eraikitzeke proiektuak sortzen jarraitzeko aukera emango diguten espazioak.

01. egungo testuingura



EAEkotrans legearen onarpena



2024ko otsailean, Eusko Legebiltzarrean onartu zen **4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Trans pertsonak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, EAEko trans legea izenez ezagutzen dena**. Lege horrek trans-taldeek urteak eskatzen zeramatzaten neurri asko inplementatzen ditu, medikuntzan, hezkuntzan, lanean... Hala ere, onartu zutenean, trans kolektibo batzuek adierazi zuten: **“legea zaharkitua jaio da”**. Legeak oraindik ez ditu aintzat hartzen EAEko genero ez-bitarreko pertsonak, nahiz eta modu apalean aipatzen dituen hezkuntzaren atalean. Era berean, titulutik kanpo, legeak “transexual” terminoa erabiltzen jarraitzen du, termino patologizantea denez trans pertsonen kolektibo askok baztertu dutena.

Hori eta guzti, azpimarratu behar da legeak oso ekarpen beharrezkoak egiten dizkiela EAEko esparruei, eta ekarpen horiek ezartzeko lanari erreparatzen jarraitu beharko dugula. Aipatu behar dugu, halaber, **trans eskubidearen subjektuaren aitorten garrantzitsua dela eta trans pertsonen kolektiboen parte-hartzea legearen prozesu batzuetan sartzeari ere**, nahiz eta, jakin dugun bezala, parte-hartze hori oraindik ez dagozazatuz. Era berean, uste dugu Arabako Foru Aldundiak urriaren 23an eman zuen urratsa, genero ez-bitarreko pertsonak dokumentu ofizial, formulario eta inkesta guztietan sartzekoa, genero ez-bitarreko pertsonen eskubideen subjektua aitortzea denbora-kontua baino ez delako sintoma izan litekeela, eta ikusguneak erakunde hori zoriondu nahi du ekimen horrengatik.

Legeetan jasotako eskubideak gauzatzea

Trans pertsonen bizipenei eta prozesuei dagokienez antzematen dugun erronka horiei buruzko ezagutzarik eza da: ez jakitea zer urrats eman, nora joan, nola egin nahi diren aldaketak... Behar horri erantzuteko, behatoki

gisa laguntza erregularra emateaz gain, aurreko ikusgunek, trans aktibistekin lankidetzan eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, informazio horiek biltzen dituen **gida** bat argitaratzea erabaki zuen, eskuragarri jartzeko. Gida horrek agerian utzi du, erakunde publikoen mailan, **oraindik ere beharrezkoa dela protokoloak bateratzea**, aldaketa horiek inplikaturako pertsonarentzat modurik errazenean egin ahal izateko.

Arabako testuinguruan ez bezala, eta EAEko alderdi politiko gehienak trans eskubideen alde daudela kontuan hartuta, adierazi behar dugu **estatuan hainbat proposamen egin direla, hala nola trans emakumeak kirol-eremutik kanporatzea**. Gure ustez, horrelako neurriak onartuz gero, **aurrekari arriskutsua izango litzateke trans pertsonen eskubideak murrizteko**. Gainera, azpimarratu behar dugu proposamen horiek



01. EGUNGO TESTUINGURUA

gorroto-diskurtsoen eta mugimendu erreakzionarioen diana emakume trans gehienak diren bezalako pertsona kalteberetan jartzen dituztela, eta bateraezinak direla edozein erakundek izan beharko lituzkeen berdintasun-balioekin eta giza eskubideen defentsarekin.



2021eko uztailaren 3ko goizaldean, Samuel Luiz hil zuten A Coruñan, marikoi-oihukatzen ziotela. Estatuan aspalditik ikusten ez zen bezalako hilketa homofobo basati hori publikoki salatu zuten LGTBI+fobiaren aurkako behatokiek, baina hasiera batean gorroto-krimenaren izaera ezesten saiatu ziren kanpotik, lapurreta hilketaren arrazoi gisa aipatuz. LGTBI+ behatoki eta elkarrekin adierazi genuen homofobia zela arrazoi, eta **denborak eta epaitegiek arrazoi eman ziguten.** 2024an, **LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiaren Estatuko Sarearen parte gisa mugitu ginen, epaiketa jarraitzeko.** Berebiziko garrantzia duen epaiketa izan zen, ez bakarrik Samuelen duintasuna berrezartzeko beharragatik, baita indarkeria LGTBI+fobikoen aurrean zigorgabetasunari aurre egiteko beharragatik eta krimena gorroto-krimen gisa aitortzeko beharragatik ere.

Horretarako, 2024an **bilerak izan ditugu gorroto-delituaren fiskaltzekin**, elkarrekin lan egiteko, polarizazio-adierazle horiek kontuan har daitezten. Azkenik, **00013/2025 Epaian¹** jasoko berediktuak onartu zuen **Samuel bere sexu-orientazioagatik hil zutela**, akusatu gehienek krimenean parte hartu zutela eta, gainera, ahalik eta kalte handiena eragiteko asmoz hil zutela. Berediktuak berretsi egiten du kolektiboki eta behatokiok hasieratik adierazi duguna, nahiz eta une horretan pertsona batzuk iritzi publikoan motibazio homofobo horren aurkako kontakizun ikusezin bat sortzen saiatu ziren. Gure ustez, homofobiari homofobia deitzen eta hilketari hilketa deitzea hasi da erreparazioa, baita gorroto-krimen bat zigorrik gabe ez utziz. Samuel jada ez dago gure artean. Haren memoria, beste LGTBI+ aktibista batzuenarekin batera, presente egoten jarraituko du LGTBI+ kolektiboentzat; izan ere, gorroto-delituak eta krimenak ez dira banakako kontua soilik, kolektiboki eragiten baitigute, eta, horregatik, behin eta berriz diogu **ez gaudela bakarrik, eta asko garel LGTBI+ pertsonen bizitzak, identitateak, desioak, zorientasuna eta abar bigarren mailako kontu gisa uzten ez duen gizarte baten alde lan egiten dugunok.**



Badira urte batzuk **olatu erreakzionatzaile bat ikusten ari garela mundu osoan**, olatu kontserbadore eta errepresibo bat, azken urteotan LGTBI+ mugimenduek eta mugimendu feministek lortutako aurrerapasoei aurka egiten saiatzen dena. Kezka handiz ikusten dugu Latinoamerikan, Estatu Batuetan, Europan eta abarretan **eskuin-muturrekoak gora egin duela**, eta igoera horren isla gorroto-diskurtso LGTBI+fobiko eta misoginoen hedapena dugu, batez ere sare sozialetan. Bereiki kezagarria da transfobiak diskurtso horietan duen protagonismoa, trans pertsonen kalteberatasun bereziaren ondorioz. Hain zuzen ere, kalteberatasun handiago horregatik, badirudi gorroto-taktikek, hala nola deshumanizazioak, barregarri uzteak eta kriminalizazioak, gizarte gaitzespen txikiagoa dutela eta alderago jartzen dela. Aurten, gainera,

gora egin dute diskurtso homofoboek, batez ere homosexualitatea eta pedofilia modu faltsuan lotzen saiatzen direnek. Joera horrek berretsi egiten du askotan adierazi duguna, hau da, trans pertsonen eskubideen aurkako eraso delat talde, elkarte eta alderdi horiek beren diskurtso matxistak eta

¹ [00013/2025 epaia](#)

01. EGUNGO TESTUINGURUA

LGTBI+fobikoak normalizatzeko aukeratzen duten bidea.

2024an trans pertsonen eskubideen aurka ikusi dugun eraso argienetako bat izan da **trans pertsonen kirolean izan duten parte-hartzea “polemikoa”**. **Horri dagokionez**, gogora ekarri behar dugu 2024ko Parisko Joko Olinpikoetan gertatutakoa; izan ere, hainbat atletei, horietako bat ere ez zuria, emakume trans izatea eta bidegabeki lehiatzen aritzea leporatu zitzaizen. Atletetako bat ere ez zen trans, baina gorroto-diskurtsoek oihartzuna izan zuten, eta emakume transek kirol federatuetan parte hartze oso minoritarioari buruzko irudi guztiz faltsua sortu zuten.

Adierazi behar dugu trans pertsonak kirolean duten parte-hartzea zalantzan jartzeak indartu egiten duela trans pertsonak, jaiotzean esleitutako sexuagatik, beren parte-harteari dagokionez abantailaren bat izan dezaketela dioen ideia okerra. Ideia horrek ez ditu kontuan hartzen trans pertsonak pairatzen dituzten diskriminazio- eta pobretze-baldintza materialak, kirolerako sarbidea zailtzen baitzaie; gainera, trans pertsonak egiten dituzten trantsizio-prozesuen **ideia zisexista eta bio-esentzialistak indartzen ditu**. Bestalde, adierazi behar da “emakumeen kirola babesteko beharra” premisaren pean, eraso horien zati handi bat trans emakumeei zuzenduta dagoela. **Akusazio horiek indartu egiten dute, alde batetik, transmisoginia deritzon trans emakumeen identitatea emakume gisa ukatzen duen ideia, eta, bestetik, emakumeak gizonak baino biologikoki mendekoak direla dioen ideia matxista**. Gure ustez, gorroto-diskurtso horietako eragileek ez dute inolako benetako kezkarik emakumeek kirolean berdintasunez parte har dezaten babesteko, besteak beste, zisheteropatriarkatua baita oraindik ere haien oztopo nagusia; aitzitik, diskurtso transmisoginoak normalizatzeko kezka faltsua gauzatzen dute, kirolean trans pertsonen parte-hartzea murriztu ondoren, batez ere **trans emakumeen parte-hartzea, eskubideak murrizten jarraitu ahal izateko, trans identitateen legezko edozein aitortpen indargabetu arte**.

Kezkaz ikusten dugu nola elkarte eta alderdi batzuek bereganatu duten gorroto-diskurtso hori, trans emakumeek kirolean parte hartzea eragotziko duten legeak proposatuz, lege transautonomikoak indargabetuz, LGTBI+ kolektiboaren siglak murriztuz edo, **hauteskundeak irabaziz gero, trans legearen indargabetzea aginduz**. Era berean, ikusi dugu hainbat herrialdetan antzeko diskurtsoak dituzten alderdiak boterera iritsi ondoren, trans pertsonen, LGTBI+ kolektiboaren eta emakumeen eskubideak, bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna pikutara joan direla.



01. EGUNGO TESTUINGURUA



Olatu erreakzionario horren aurrean, gure ustez, erakundeek eta alderdi politikoek inoiz baino gehiago egin behar dute **politika publiko feministak, interseksionalak** eta asmo eraldatzaileak dituztenak ezartzeko apustua, **giza eskubideak, trans pertsonen, emakumeen eta LGBTI+ kolektiboaren eskubideak blindatzeko.**




ERRESISTENTZIA sareak


Aurten, olatu erreakzionatzailearen aurrean sortutako erresistentzia-sareen balioa azpimarratu nahi dugu. Mugimendu feministak, bereziki **Gasteizko Mugimendu Feminista**, gorroto-diskurtsoei aurre egiten ari dira, bereziki diskurtso transfoboei. **Aliantza** hori guztiz **funtsezkoa** da babes- eta erresistentzia-sareak eraikitzeko; izan ere, **diskurtso transfobo eta matxisten kontrako erresistentzia begirada feminista eta interseksional batetik baino ezin da artikulatu.**

Eraberean, 2024an, **Ikusgunek espazioak sortzeko lan egindu**, non genero ez-binarioko pertsonak elkar ezagutuko duten, sareak sortuko dituzten, esperientziak partekatuko dituzten eta hainbat gairi buruz hitz egin ahal izango duten, hala nola identitatea genero-binarismotik harago, nortasunaren aitortpen legal eta politikoa, genero ez-binarioko identitateen euskararekiko harremana...

Horren erakusgarri da Ikusgunen genero ez-binarioko pertsonen I. topaketa antolatzea, behatokiaren dokumentu guztietan pertsona horiek badaudela aitortzea, haien eskaerei laguntzea, kolektibo adierazgarriari arreta emanez, edo pairatzen duten indarkeria espezifiko eta enebefobia aitortzea, gertakarien txosten horietan txertatuz. Ikusgunek irekitako eta arestian deskribatutako ardatz ez-bitarraren ondorioz, ikusi ahal izan dugu **erakunde batzuk genero ez-bitarreko identitateak aitortzen hasi diren heinean**, hala nola Arabako Foru Aldundia edo EHUko Euskal Unibertsitate Publikoa, **genero ez-bitarreko pertsonak aitortuta eta errespetatuta sentitzen direla gure eremu instituzional hurbilenari dagokionez.**



02. metodologia



Aldizka, LGTBI+fobiaren aurkako behatokiok orain arte Kataluniako Observatori Contra L 'LGTBIfobia-k antolatutako topaketa batzuetan biltzen dira, eta behatoki guztien artean ahalik eta sinergia handienarekin lan egiteko akordioak bultzatzen ditugu. Hala, 2018an, **LGTBI+fobiaren aurkako behatokiak I. topaketa** antolatu zen, eta gertakari bat erregistratzeko ezagutu beharreko gutxieneko adierazleak adostu ziren:

- **Leku zehatza ezagutzea**
- **Une zehatza ezagutzea**
- **Pertsona zehatza ezagutzea**


Gainera, datu horiek Ikusguneren lan-eremuari erantzun behar diote, hau da, Gasteizko udalerriari, begirada Arabako lurralde osora zabalduta. Horrela, lehen azaldutako gutxieneko adierazleak betetzeaz gain, **gertakariak honelako ezaugarriak bete behar dituzte:**

- **Gasteizko edo Arabako edozein tokitan gertatu behar dira**
- **Sare sozialetan gertatzen bada, eragindako pertsona Arabako bizilaguna izatea.**
- **Sare sozialetan, gertakaria eragin duen kontua Arabako pertsona edo talde batena izatea argi eta garbi, inolako zalantzarik gabe.**

Horrez gain, Ikusgunek balio handia ematen dio **elkarriketa pertsonalari**, gertatutakoari buruzko datu guztiak zehatz-mehatz ezagutzeko. Gertakari baten berri eman den kasu guztietan, Ikusgunen gertatutakoaren berri emateko aukera eskaini da.

Gorrotoaren polarizazio-adierazleak deiturikoen garrantzia nabarmendu behar da; horiek markatuko digute gorroto-motibazioa duen indarkeria baten (gure kasuan, sexu-orientazioagatik, genero-adierazpenagatik edo -identitateagatik) eta ez izatearen arteko aldea.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da zehaztea bi ezaugarri bete behar direla gertakari bat gorroto-delitutzat hartu ahal izateko:



1.- Gertatutakoa delitua izatea

2.-Gertatutakoa kolektibo jakin batekiko gorroto-motibazioa izatea

Horregatik, indarkeria askok, Ikusgunek ezagutzen dituen gehienek, ezin dute ibilbide judizialik izan. Ikusgunen, gure ustez, delitua izan edo ez, txosten honetan jaso eta azaldu behar dira indarkeriak, hala nola irainak, diskriminazio batzuk eta LGTBI+ pertsonetako gorroto-giroak sortzea bilatzen duen oro.

02. METODOLOGIA

Gainera, gertakari bat ezagutzen dugunean, gorroto-motibazio bat ala ez bereiztea ahalbidetuko diguten elementuen zerrenda jakin bat begiratu behar dugu. Elementu horiek gorrotoaren polarizazio-adierazleak dira: **motibazio faxistako tatuajeak, LGBTI+ kolektiboa ibiltzen den espazioetatik gertu edo espazioetan gertatutako gertakariak, data garrantzitsuetan edo kolektibo horrentzat ospakizunetan gertatzen direnak, erasotzailea alde aurretik ezagutzea, gertakarian zehar hitzez egindako adierazpenak, etab.**

2024an, 33 gertakari jakinarazi zaizkio Ikusguneri, eta horietatik 24 txosten honetan jaso dira. Hiru alditan, ezagutzen diren gertakariak pertsona desberdinek jakinarazitako gertakari berari dagozkio, eta guztiak bateratu dira 1go gertakarian. Hiru alditan, jakinarazitako indarkeria ez zen LGBTI+fobia, eta, beraz, Ikusguneren lan-eremutik kanpo geratzen da; bi alditan, ezagutzen diren gertakariak Arabatik kanpo gertatu dira, eta behin jakinarazten duen pertsona ez da elkarriketa pertsonalera joan.

Bestalde, Ikusgunek **5 aldiz ezagutu ditu LGBTI+ pertsonen kalteberatasun-egoerak Gasteizen;** horietako batzuk salaketak jartzeko unean izan dira, beste batzuk zuzenean joan dira lokalera, **migratuak dira eta beren jatorrizko herrialdeetan indarkeria-egoeretatik ihes egin dute.** Kasu guztietan, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin kudeatu da **gizarte-zerbitzuetako arreta.**

Txostenak 2024ko urtarrilaren **1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean** Ikusgunek ezagututako gertakariak jasotzen ditu. Harremanetarako bideak honako hauek izan dira: salaketa-telefonoa, aurrez aurreko arreta, sare sozialak eta horietan bilaketa aktiboa egitea, online salaketa web bidez (www.ikusgune.eus) eta prentsa idatzian eta digitalean. Gertakarien berri izan ondoren, Behatokiaren barne-fitxa batean jasotzen da. Gertakaria aurrez aurre jakinarazi ez bada, kaltetutako pertsonak bertaratzera gonbidatu ditugu, arreta hobea emateko modu lasaian. Informazio guztia bildu ondoren, jarraitu beharreko urratsak baloratzen dira: laguntza medikoa edota juridikoa, salaketa publikoa, etab.

Ikusgunek Gasteizko Udaleko Berdintasun-Zerbitzuarekin koordinatzen ditu kaltetutako pertsonak izan ditzakeen beharrak. Era berean, udaltzaingoari edo Ertzaintzari jakinarazten die biktimek salaketa jarri nahi dutela, haiekin hitzordua adostu eta salaketan informazioa hobeto jaso ahal izateko.

Horrekin batera, Ikusgunek salaketa jarri den gertakari ezagun ororen berri ematen dio Gorroto Delituen Probintzia Fiskaltzari, une oro detektatu ahal izateko ea gorroto-zantzurik dagoen, eta izapidetze egokia izan ahal izateko, Ikusguneren laguntzarekin batera, prozesu judizialaren ondoriozko frustrazioak saihestu ahal izateko.

Era berean, Ikusgunek indarkeria ezagunak mailatzen ditu mota hauen arabera:

02. METODOLOGIA

ERASOA

LGTBI+ pertsonen aurka edo kolektibo horrekin elkartzeagatik gerta daitezkeen indarkeria fisikoak edota ahozkoak, hala nola irainak, mehatxuak, barregarri uztea, bultzadak, jipoiak...

GORROTO-DISKURTSOA

LGTBI+ kolektiboaren aurkako gorrotoa sortu nahi duten adierazpenak, haien aurkako estigmatizazioa, diskriminazioa edo indarkeria bilatu nahi dutenak.


IRAINAK

Irainak edo mespretxua, normalean ahozkoa, baina LGTBI+ pertsonetiko keinu edo begiradetan ere adieraz daitezkeenak.

DISKRIMINAZIOA

Pertsona bati sexu-orientazioagatik, genero-identitate edo genero-adierazpenagatik, jatorriagatik, kulturagatik, erlijioagatik... ematen zaion tratu desberdina eta kaltegarria.

03. gertakariak



Jarraian, **Gasteizen sexu orientazioaren eta genero identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko VIII. Txosten honetan jaso diren gertakariak** zehazten dira.

1/2024 GERTAKARIA

Data: 24/03/08

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Martxoaren 8aren testuinguruan, hainbat kartel eta pegatina transfobo agertzen dira, horietako batzuk lkusguneren egoitzaren aurrean. Kartelek gorroto-diskurtso transfoboak goraiatzeko dituzte, mezu hauekin: "Se ha llegado tan lejos en la promoción de la igualdad que... hasta los hombres pueden ser mujeres", "La ley trans es homófoba, niega las orientaciones sexuales", "Las lesbianas están siendo presionadas para tener sexo con hombres autoidentificados como mujeres, so pena de ser acusadas de transfobia", "La ley trans prevé multas de hasta 150.000 euros a psicólogos que ahonden en los motivos que llevan a los/as menores a creer que su cuerpo está mal y que pertenecen al sexo opuesto" edo "Según la ideología de la identidad de género, una niña que juega al fútbol puede ser un niño y un niño que juega con muñecas puede ser una niña". Ekintza horiek talde transfoboek aldarrikatzen dituzte, Araban eta Arabatik kanpo jarduten duten konbertsio-terapien alde.

Deskribapena:


Pertsonak irainak eta gorroto-mezuak jasotzen ditu sare sozialen bidez, hala nola "puta", "lesbiana de mierda" eta "malfollada". Mezu horietako batzuek argazki pollak dute. Horrekin batera, emakume gisa duen nortasuna zalantzan jartzen duten iruzkinak jasotzen ditu. Indarkeria horretan parte hartzen duten kontu gehienek eskuin eta eskuin muturreko profilak dituzte.

2/2024 GERTAKARIA

Data: 24/04/03

Tokia: Sare sozialak

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa



03. GERTAKARIAK

3/2024 GERTAKARIA

Data: 24/04/30

Lekua: Garraio publikoa

Tipologia: Iraina

Deskribapena

Autobus baten zain dagoela, adin txikikoen talde bat "mari-con" koreatzen hasten da, bere aldetik erreakzioaren bila eta beldurtu nahian. Autobusera igo ondoren, helburuz aldatzen dira eta bakean uzten dute.

5/2024 GERTAKARIA

Data: 24/05/28

Tokia: Ikastetxea

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Maiatzaren 17a baino lehen, "No a los gays" bezalako kontsigna homofoboak dituen kartel bat agertzen da ikastetxean. Ekintza bat eta argazki bat egin zuten ekitaldia salatzeko, eta kartel bat jarri zuten homofobiaren aurka. Kartelean homofobia hitza moztuta agertu da, eta LGTBI+ bandera zintzilik, bainugela batean sartuta.

4/2024 GERTAKARIA

Data: 24/04/11

Lekua: Udal ekipamendua

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Gaur egungo gaiei buruzko hitzaldi laburrak emateko ekitaldi baten testuinguruan, liburu transfobo bateko idazle bat gonbidatzen da. Hitzaldian hainbat iruzkin transfobo egin zituen, hala nola trans aktibismoa sekta bat dela, trans gizonak emakumeak direla, trans gizonaei buruz esanez "mujeres que se amputan los pechos y úteros sanos y menores que toman castradores químicos" eta trans kolektiboek zera egiten dutela: "empujan a los menores a la dependencia farmacológica y a adoptar identidades destructivas". Pertsona horri espediente berreslea ireki zitzaion, trans pertsonen konbertsio-terapiak egiteagatik.

6/2024 GERTAKARIA

Data: 24/05/28

Lekua: Ikastetxea

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Maiatzaren 17an, ekitaldi bat egin zuten ikastetxean, eta 15 metroko bandera bat jarri zuten patioan. Asteburuaren ondoren, lurrean urratuta agertu zen eta, ondoren, berriro jarri zen. 27an, astelehenean, bandera erreta agertzen da.

03. GERTAKARIAK

7/2024 GERTAKARIA

DATA: 24/05/29

LEKUA: BESTE BATZUK (WHATSAPP)

TIPOLOGIA: IRAINA

Deskribapena:

Bere etxearen alokairuarekin lotutako arazoak dituen pertsona batek komentarioak egiten dio salatzen duen pertsonari, emakume gisa duen nortasuna zalantzan jarriz, eta "ven ahora disfrazada" idazten dio.

8/2024 GERTAKARIA

Data: 24/06/03

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Banku bat LGTBI+ banderaz margotuta zegoen harrotasunaren hilabetea zela-eta, eta pintada homofoboekin bandalizatuta ageri da.

9/2024 GERTAKARIA

Data: 24/06/26

Tokia: Sare sozialak

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Ekainaren 28a dela eta, sindikatu batek kartel bat partekatu du sareetan, identitate disidenteak babesteko klase-borrokaren barne. Berehala, argitalpena mezu transfoboz betetzen da: "necesitan ayuda, no hormonas ni mutilaciones", "El único sujeto político feministas son las mujeres" (cis emakumeak baino ez dira aipatzen), "Ya sabemos que van de peneporantes" eta "Ley trans capitalismo liberal", besteak beste. Mezuek konspirazioei ere egiten diete erreferentzia, eta "Lobby queer", "ideología queer", "identidades de género sintéticas" edo "desacreditada disforia de género de inicio rápido" bezalako esapideak aipatzen dituzte. Kontu horietako batzuek pertsona trans operatu berrien argazki deshumanizatzaileak dituzte.

03. GERTAKARIAK

10/2024 GERTAKARIA

Data: 24/07/01

Tokia: Sare sozialak

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Pertsona batek, bere joera transfoboak direla-eta, gizarte-bazterkeriako egoeran dagoen trans pertsona bat jazartzen duenean, lkusgunek mezu bat jartzen du sareetan, eraso jasan duen pertsonari laguntzeko. Berehala agertzen dira mezu transfoboak, trans emakumeak genero-indarkeriarekin eta misoginiarekin lotzen dituzten mezuak, trans pertsonetikiko gorrotoa ukatzen dutenak, behatokiarekiko mehatxuak eta baita otoitzak ere.

11/2024 GERTAKARIA

Data: 24/07/01

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Eraso

Deskribapena:

Gizarte-langile batek "maricón de mierda" bezalako irain homofoboak jasotzen ditu zerbitzuaren erabiltzaile baten partez. Gizon horrek ere txistua botatzen dio eta salatzailea erasotzen saiatzen da. Egoera hori hiru hilabeteetan zehar errepikatzen da.

12/2024 GERTAKARIA


Data: 24/07/02

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Gizon batek liburuxka batzuk banatzen ditu QR batekin eta "El fin está cerca" mezuarekin plaza batean. Kodeak LGTBI+ pertsonetikiko gorrotoz blai dagoen blog bateko artikulua batera birbideratzen du. ArtikuluaK, kristau-jarrera batetik, LGTBI+ pertsonen inguruan zera dio: "desviados del diseño original de Dios, es pecado, está mal". Trans pertsonak deabruak bidaltzen dituela deritzo: "El mayor enemigo de Dios el diablo (...) se está esforzando grandemente en estos últimos años, es atacando su identidad", "nos dejó el diseño: dos géneros, no doscientos, cómo nos están intentando meter a presión". Lesbianen eta gayen arteko harremanei eraso egiten die: "Dos hombres y dos mujeres no producen vida (...) Los órganos sexuales masculino y femenino encajan a la perfección como dos piezas de un puzzle (...) el amor nunca justifica el pecado". Gainera, artikuluaK iruzkinak egiten ditu ere gay kolektiboa gaixotasunekin lotuz: "Las ETS, el SIDA o la viruela del mono, por ejemplo, afectan sobre todo al colectivo gay. Es una de las maneras en las que Dios manifiesta su total desaprobación a estas prácticas sexuales"; eta barregarri uzten ditu suizidio-, antsietate- eta depresio-kasuak LGTBI+ kolektiboaren artean "Algunos dicen que es porque siempre ha sido un grupo muy discri-



03. GERTAKARIAK

minado, pero la realidad es que el colectivo más perseguido de la historia es el cristiano y sus índices de suicidio muy bajos” esanez. Artikuluaren amaieran, konbertsio-terapien alde egiten da: “Un amigo suyo, que se movía mucho en el ambiente de noche, le contaba la cantidad de homosexuales que de fiesta le habían confesado que les gustaría salir de eso. Comparto un enlace al canal de un chico al que Jesús liberó y transformó”.

13/2024 GERTAKARIA

Data: 24/07/05

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Eraso

Deskribapena:

Salaketa egindako pertsonari haren pertsona ezagun batek oldarkortasunarekin tratatzen hasi dio. Harrezkero, topo egiten dutenean, beldurtu, iraindu eta erasotzen saiatzen da. Era berean “maricon, transformer, que te afeites, hijo de puta, yonki” bezalako mezuak eta “se te acaba el tiempo. Ya te dormirás. Te voy a quemar viva. Me lo vas a pagar” bezalako mehatxuak bidaltzen dizkio Egoera hori bi hilabeteetan zehar errepikatzen da.

14/2024 GERTAKARIA

Data: 24/07/11

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Eraso

Deskribapena:

Mutil batek biktima aurpegian kolpatzen hasi zen, “vayasé a su país maricón negro” oihukatzen zion bitartean, eta erasotako pertsonarekin zebiltzaten bi emakumeak iraindu zituen. Eraso inguruko bizilagun batek gelditu zuen.

15/2024 GERTAKARIA


Data: 24/08/07

Lekua: Etxea/Bizilagunen komunitatea

Tipologia: Diskriminazioa

Deskribapena:

Baliabiderik ez duen genero ez-bitarreko pertsona bat bere nahien aurkako ospitaleratze psikiatriko batean dago, eta amak kalean uzteko mehatxua egiten dio, alta eskatuz gero. Salatzen du, halaber, amak ospitaleratze horretara behartzen duela, konbertsio-terapia moduko bat izan dadin, eta horrek ideologia transfobo nabarmena duela.



03. GERTAKARIAK

16/2024 GERTAKARIA

Data: 24/07/13

Lekua: Etxea/Bizilagunen komunitatea

Tipologia: Diskriminazioa

Deskribapena:

Pertsona batek baimena eskatzen du salatzailearen atetik sartzeko erabiltzen den zati bat hesitzeko. Behin, salatzaileak alkatea aurrean izan zuen hori aurrera eramateko sinatutako baimenarekin eta aurrean daukan bizilagunaren iruzkinak dituen orri mordoarekin. Salatzaileak, irakurri nahi ez dituelarik, baimena hausten dio. Beste batean, fatxadaren aurreko hesia kendu eta alde baten utzi ondoren, alkatea modu txarrean hasi zen berarekin eztabaidatzen, tonua altxatuz eta ukabilkadak airera jaurtiz, indarrez. Alkateak honako hau esan zion: "Te voy a decir realmente lo que pienso de ti, y ahora si que me vas a denunciar, eres un puto maricón de mierda. un puto maricón de mierda sin clase".

17/2024 GERTAKARIA

Data: 24/08/08

Lekua: Etxea/bizilagunen komunitatea

Tipologia: Diskriminazioa

Deskribapena:

Bi emakume lesbiana beren familietatik kanporatu dituzte, eta Gasteiztik alde egitera behartu dituzte.

18/2024 GERTAKARIA

Data: 24/08/09

Lekua: Gaueko aisia/ostalaritza

Tipologia: Eraso

Deskribapena:

Gizon batek salatzailea jazartzen du, tratu txarrak ematen dizkio eta eraso egiten dio, iruzkin homofoboak eginez. Jatetxe batean jaten ari zela, berriz ere iraintzen hasi zitzaion, eta aulki batekin jo zuen; bere burua babesteko, erasotzailea besoa zauritu zuen mahai tresnekin.

19/2024 GERTAKARIA


Data: 24/08/09

Lekua: Gaueko aisia/ostalaritza

Tipologia: Iraina

Deskribapena:

Mutil batzuek salatzailea iraindu egiten dute "bujarra" deituz, jai-giroan beste mutil batekin zegoen bitartean. Beste urte batzuetan baino begirada eta iruzkin homofobo gehiago ere sumatu ditu.



03. GERTAKARIAK

20/2024 GERTAKARIA

Data: 24/08/04

Lekua: Gaueko aisia/ostalaritza

Tipologia: Eraso

Deskribapena:

Taberna batean zegoela, gizon batek bultza egiten dio dantza egiten duen bitartean, eta aurre egiten dio, eta iseka egiten dio, "maricón a escondidas" deituz. Geroago, tabernatik irtetean, beste pertsona batek iseka egiten dio bere genero-adierazpenagatik.

22/2024 GERTAKARIA

Data: 24/08/07

Lekua: Espazio publikoa

Tipologia: Gorroto-diskurtsoa

Deskribapena:

Pertsona batek trabesti ikuskizun bat prestatzen du blusa eta neska koadrilla batentzat. Gehienek harrera ona izan zuten arren, blusa batzuek isekazko mezu publikoak idatzi zituzten, haiek "normalak" zirela nabarmentzeko asmoarekin.

21/2024 GERTAKARIA

Data: 24/08/05

Lekua: Gaueko aisia/ostalaritza

Tipologia: Iraina

Deskribapena:

Lagun batekin parrandan zegoela, mutil bat hurbildu zitzaien zigarro bat eskatzera. Eman nahi ez zuenez, behin eta berriz mehatxuka hasi zen. Geroago, pertsona hori eta beste batzuk haiengandik hurbil igarotzen dira bizikletaz, eta "bujarras" oihukatzen dizkiete.

23/2024 GERTAKARIA

Eguna: 24/09/13

Tokia: Lantokia

Tipologia: Diskriminazioa

Deskribapena:

Lankide batek modu desberdinean tratatzen du eta zakar tratatzen du bere burua era irekian genero ez-bitarreko pertsona bezala espresatzen baitu eta normatibotzat jotzen ez den genero-adierazpena baitu. Jazarpena hain handia izan zen non lana utzi behar izan zuen puntu batera iritsi zen.

24/2024 GERTAKARIA

Data: 24/10/10

Tokia: Lantokia

Tipologia: Diskriminazioa

Deskribapena:

Ostalaritzan lan egiten duen bitartean, hainbat arduradunek komentario LGTBI+fobikoak egin dizkiote. "Ese no es maricón, ese es gay que tiene estudios" bezalako iruzkinak entzun ditu, eta PortAventura 2024an bi lesbianek jasandako erasoak justifikatzen zituzten komentarioak ere. Gainera, egun batean barra aldatzen ari zirela, arduradunetako bat haren atzean jarri zen, eta berarekin uzki-sexua izatea simulatu zuen, itxuraz sexualitateagatik umiliatzeko asmoz.

GERTAKARIEN AZTERKETA

GORROTO-DISKURTSOAK

